

JON ARRETXE

**TANGERKO
AMETSAK**

erein

— | —

LANBROTURIK

1



Gizon beltz bat eta emakume zuri bat agertu dira motor baten gainean. Solairu bakarreko eraikin zabalak dira nagusi inguruan, inolako antolamendu edo egitura jakirik gabe eraikitakoak eremu malkartsu baten. Eguzkiak ondo berotzen du honezkero eta astiro datoz, kaskorik gabe, asfaltatu gabeko bide gorabeheratsutik ke asko botaz eta hauts gehiago harrotuz. Gizonezkoak gidatzen du, trebezia handiz lurreko zulo, harri eta bestelako oztopoak saihesterakoan. Harritzar batzuk atzean utzi ondoren, motorraren galga sakatu eta keinua egin du buruaz, gorri ilunez margotutako burdina erdi ugertuzko atetzar ireki bat seinalatuz.

–Hor da.

Neska motorretik jaitsi da eta motxila lurrean utzi du. Hogeitaka urte dauzka, argala da, garai samarra, itxura

atletikokoa, eta bere ile-adats luze eta argia desorraztuta eta hauts gorrixkaz beteta dago. Azal zuria izan arren, oso beltzarandua dauka, aurpegikoa batik bat. Gidariari esker ona adierazteaz batera diru apur bat eman nahi izan dio, baina gizonak onartu ez, eskua bihotz aldera eraman eta joan egin da etorritako bidetik, neskari zorte ona opatuz. Iritsi berria bere atzamar mehe eta hezurtsuez ilea pixka bat lisatzen saiatu da, eta beste horrenbeste egin du jantzita dauzkan arropa arinekin: oihal meheko praka moreak eta mauka laburreko kamiseta laranja. Gero, aurrean daukan bizileku-gunean ezarri du arreta. Burdinazko ate gorria sarbide bakarra da horma luzez eratutako lauki itxurako barruti zabal baterako. Atetik hurbil, lurtean ipinitako kartoi baten gainean jesarrita, kolore bizi eta ugariko oihalez jantzitako andre beltz bat dago, kakahuetak eta bananak erakusgai dituen postu ñimiño baten alboan. Pixka bat harago itxura berdintsuko beste andre bat frijituak prestatzen ari da zartagintzar bateko olio ugarian. Biak daude iritsi berriari begira, isilik, interpretatzen zaila den keinu adieragabe batez. Eta ez dira andre horiek neskari so egiten dioten pertsona bakarrak. Interes gehien erakusten dutenak umeak dira, eta berarengandik metro batzuetara pilotzen ari dira pixkanaka, isilpean, jakin-minez. Asko ortozik daude, beste batzuek txankletak dauzkate oinetan; eta arropei dagokienez ere denetarik dago: batzuk ia biluzik doaz eta beste batzuk goitik behera jantzita, batak

latorrizko potea eskuan daukala, besteak plastikozko botila hutsa, edo makila, edo pilota, edo neba-arreba txikiago bat... Edonola ere, ez dute errukirik sentiarazten, itxura osasuntsua baitaukate, zoriontsuak baitirudite. Ezohikoa da azal zuriko jendea agertzea euren Bamakoko auzoan, eta arretaz begiratzen diote emakumezko garai hari, eta haren ile-adats argiari, eta haren sudur luzeari...

Neskak, orduan, etengabeko hots erritmiko bati erreparatu dio. Plastikoz eta egurrez estalitako txabola bategin dator eta, motxila lepoan hartuta sarrerara hurbildu eta begiratu laburra egin du barrualderantz. Hiru gizon ikusi ditu, makila sendoez soinekoak jo eta jo enbortzar etzan baten gainean. Robotak balira bezala dihardute lanean, kolpeak erritmo perfektu batez joaz, eta ez diote begiluzeari jaramonik egin. Izan ere, begirada erabat lausoturik daukate, lisatzeko zain dituzten oihal afrikarren mila koloreen arteko puntu zehaztugabe baten galdurik.

Burdinazko aterantz itzuli ahala, txabolako plastikoen babespean beroak itzela izan behar duela pentsatu du bisitariak, eta bera ere, motorraren mugimenduari esker erdi ahaztuta zeukan itomen sentiera berriro nabaritzen hasi da. Sasoi lehorraren erdian daude, apirilean, eta garai horretan bero itzela egiten du Bamakon eta Mali osoan.

Kaleko saltzaileei buruaz agur antzeko keinu bat eginez, oraindik isilik so egiten dion ume taldea gero eta

handiagoa delarik, atea zeharkatu du eta patio karratu baten aurrean suertatu da. Badirudi hainbat familiak konpartitzen dutela eremu hori, solairu bakar bateko etxebizitza txikiz eratua. Hamar edo hamaika dira guztira, denen ateen ematen dute bizpahiru metroko hormez inguratutako patiora, eta batzuk hutsik daudela pentsa liteke. Sarreraren ezker aldean komun eta bainugela gisa erabiltzen den gunea dago, estilo tradizionalakoa, aterik gabekoa: zulo huts bat lurrean, buztinezko lau hormaz inguratua; eskuinaldean, osterara, patioa iturri komunala kokatzen da. Honen alboan, hankak tente eta gerria gutziz makurtuta emakume afrikarrek ohi duten erara, adinez nagusia ozta-ozta izango den neska lodi batek ontzikadak eten barik betetzen dihardu. Urtebete baino gutxiagoko haurtxoa garbiontzi huts baten sartua dauka. Honek heldu berriarengan ezarri du arreta marra beltzez margotutako bere begi handiekin, eta amak beste horrenbeste egin du, une batez zereginari utzita.

–Egun on –esan du neska zuriak, irribarrez, poltsikotik argazki bat ateratzeaz batera–. Ezagutzen duzu?

Beste irribarre bat izan da erantzuna.

2



Magrebtar itxurako neska bat kristal lurrinduko kamioitik irten eta berehala estali zuen bere burua zapi zuri batez. Gero, jantzita zeukan txilaba horiari zimurrak kendu zizkion nola edo hala eta abiatu egin zen. Gaua zen eta tentuz ibili behar izan zuen portu alboko parking ilun eta lokaztuko putzuen artetik. Errepidera irten zen azkenik eta, gidari batek ere errespetatzen ez zuen zebrabide luze eta erdi ezabatua kontuz zeharkatuta, Espainia kalearen amaierako parkean barruratu zen. Komun publiko arbuiatuetatik ateratzen zen hantsa sumatu zuen eta itzulinguru txiki bat egin zuen haiek saihestearren, beti ere hiriaren alderdi zaharrera bidean. Bazirudien ferry bat ailegatzen ari zela Tanagerra, sasi-gidari mordoa baitzegoen portuaren sarreran bidaiarien zain.

Neskak medinarantz jarraitu zuen eta, haren sarrerako arku handira iritsita, honen atalasea zeharkatu beharrean, ezkerreko eskailera luzeetatik gora jo zuen, atari baten petrilean jesarritako atso eskale batekin topo egin zuen arte. Zapi zuri batez estalita zeukan honek ere burua, eta manta beltz batez bizkarra. Begi bat erabat itxita eta barrurantz sarturik zeukan, eta bestea irekita baina zuriturik; deus ere ikusten ez zuela pentsa zitekeen. Soinekoak belauneta-raino baino ez zizkion estaltzen hankak, berna zimurto eta mailatuak zeuzkan agerian eta galtzerdi deigarriak janzten zituen, marra horizontal zuri eta lilakoak.

Neskak sakela arakatu eta dirham bat atera zuen. Atsoaren eskuan ipini orduko honek irribarre egin zion, limosna-emailearen atzamarrak laztandu eta usaintzeaz bat.

–Eskerrik asko, Fatima. Alak lagun diezazula –esan zion, kemen handirik gabe ahotsaz.

Neskak ere irribarre txikia egin eta eskailera higituetan gora jarraitu zuen. Beste arku txikiago bat zeharkatuta, *Rue Mokhtar Ahardan* frantsesez eta arabieraz zioen plakaren azpira iritsi zen. Han abiatzen zen karrika estutik gorantz jo zuen, Tangerko ostatu miserableenak iragartzen zituzten kartel hondatuen artetik, eta berehala iritsi zen kantoi batera. *Hotel Olid* adierazten zuen hormako kartel zuri-gorriak, argi makaleko plafoi bat zegoen iltzatuta haren ondoan, eta haien azpian bera baino nahiko nagusiagoa zirudien andre bat zegoen, txilaba laranja batez jantzita eta ilea gorri oso nabarmenaz tindatuta.

–Dena ondo, Fatima? –esan zuen honek, ahots zakar batez.

–Gizona ez zen garbiegia, baina tira, komeria barik ordaindu dit, behintzat.

–Dutxatu nahi duzu?

–Ez da beharrezkoa. Berehala nator.

Alboko jatetxe nimitzora jo zuen Fatimak. Sabai baxuko lokal arrunta zen, jakineko *harira* eta beste bizpahiru jaki merke baino eskaintzen ez zituenena, horman idatzitako platerkada zerrenda luzea gorabehera. Andrazko sukaldari aspertuari agur keinua eginda, neska sarrerako harrian geratu zen. Iturria ireki eta eskuak eta ahoa ondo garbitu zituen, eta segundo batzuetan bere burua aztertu zuen ispilu pitzatuan. Oraindik zapuztu gabeko emakume gazte eta eder baten aurpegia ikus zitezkeen islatuta. Halako bizimoduaz begitarte atsegin hark, hazpegi fin haiek, noiz arte iraungo ote zuten pentsatu zuen Fatimak. Ez zuen, ordea, hausnarketa hartan gehiegi sakondu nahi izan eta, tarte labur baten ostean, eskuak lehortu eta lagunaren aldamenera itzuli zen.

–Zuk, Soraia, bezerorik ez?

Ezezko keinu etsia egin zuen buruaz andreak.

–Honela jarraituz gero, gureak egin du. Izorratuta gaude, baina benetan –haren aurpegia eta gorputza bezalaxe, haren berbaera ere askoz helduagoa zen prostituta gaztearena baino, ozenagoa, leuntasun gutxiagokoa.

–Ez da horrenbesterako izango. Uda partera arte eutsi eta kito, orduan lan gehiago edukiko dugu.

–Gauzak gero eta txarrago doaz, Fatima, ez izan inozoa. Zuk ez dituzu lehengo garaiak ezagutu, igartzen da.

Prostituta gaztea isilik geratu zen eta ile gorridunak jarraitu zuen berbaz, gogaitasun kutsuko ahoskeraz.

–Duela urte pare bat arte, ostatu hauek eta alokairuko hainbat etxe bete-beterik egoten ziren, medina osoa Europara pasatzeko zain zeuden gizonez gainezka egoten zen. Eta horiexek ematen ziguten jaten gure ogibidekooi, batez ere zuk hain estimuan dituzun azal-beltzek. Aspaldi honetan, ostera, ez dakit zer demonio gertatzen den, Europako krisia dela, itsas tarte zeharkatzeko traba gero eta handiagoak direla... Kontua da bezero barik geratzen ari garela eta, badakizu, lanik ezean ogirik ez.

–Pateren kontua boladaka doa, ezta?

–Bai, baina bolada txar eta luzeegi baten barruan gaude. Hau kaka hutsa da, neska.

Aldi batez, emakumeek hitz haien ezkortasuna marmurtzen zuten bitartean, horman txarto finkatutako argi-plafoiaren burrunba etenduna baino ez zen entzun.

–Ferry bat ailegatu da oraintxe –bota zuen halako baten Fatimak, ahoskera alaituz–. Beharbada hor dator zulo honetatik aterako gaituen gizona.

–Noski, printze espainiarra.

–Edo frantziarra.

–Edo edonongoa, zuria nahiz beltza, ezta, Fatima?

Horiz jantzitako emakume gazteak irribarre egin zuen.

–Beltza ere bai, zergatik ez? Edonongoa.

–Oraindik printzeetan sinesteko adinean zaude, inbidia ematen didazu.

–Beti zabilta adinaren kontuarekin. Zu ere ez zara hain zaharra, Soraia.

Ilegorriak ez zuen erantzun, eta isilik geratu ziren tarte batez emakume biak, hormako argi-gune bakartia-
ren azpian. Sarritan izana zuten antzeko elkarrizketa,
batzuetan barreka amaitzen zuten eta beste batzuetan etsi-
penak jota.

–Egin amets, gazte –esan zuen azkenean Soraiak,
burua beso gainean lokartzen ari zen jatetxe txikiko su-
kaldariari so.

–Zuk ere bai –erantzun zion Fatimak.

3



Ferryan iritsitako bidaiariak portuaren eremutik irteten hasi ziren pixkanaka. Batzuk euren autoetan zihoazen, eta gainerakoak jomugaren arabera: bizilekua edo ostatua hiriaren alderdi berrian zeukatenak taxiz, gaua portu alboko medina zaharrean pasatu behar zutenak oinez. Aspalditik ilun bazegoen ere, azken hauek zain zeukaten hainbat gizon irteeraren ondoan eta, burdin hesia zeharkatu bezain laster gainera etorri zitzaizkien, batez ere europar itxura zeukatenei.

–“Bienvenido a Tánger, amigo. Bienvenu à Tanger, mon ami. Welcome to Tanger, my friend...”.

Heldu berriei lapak haitzari legez itsatsita, sasi-gidariak ohiko erritualari ekin zioten: ez ziren isilduko bisitarien jatorria asmatu arte eta, behin hori jakinda, haien hizkuntza edozein zelarik ere, nola edo hala moldatuko ziren

azalpenak ematen jarraitzeko. Bigarren helburua komisioa ematen zieten ostatueta eramatea izango zen. Banakaren batek lortuko zuen, agian, gehienek ez. Edonola ere, hirugarren urratsa haxix ezin hobea eskaintzea izango zen. Eta ezertan arrakastarik izan ezean, txanponen batzuk eskuratzeko ahaleginak egingo zituzten, familiaren egoera tamalgarriaren eta Marokoko pobrezia izenean.

Baina neguaren erdialdea ez zen sasoirik egokiena bisitariak jasotzeko eta ferryetan europar turista gutxi etortzen ziren. Gau hartan ere bai. Sasi-gidari gazteenetako bat, begi oso handi eta argiko mutil makuludun mehea, gizon frantziar batekin alferrik ziharduela ohartu zen eta, ingurua aztertuta, magrebtar itxurako gizon garai bati erreparatu zion. Hogeita hamataka urte izango zituen eta ondo jantzita zihoan, erosi berriak ziruditen arropaz: larruzko txamarra beltza, jeans grisak, markako zapatilak, eguzki betaurreko garestiak bekokian, kirol poltsa sorbaldatik zintzilik... Espainia kalearen amaierako parkea zeharkatzen ari zen, medinara bidean, eta mutil hankamotzak, makuluei trebezia handiz eraginez, martxa bizkortu eta alboan kokatu zitzaion.

–Zu ez zara Tangerkoa, ezta, lagun? –esan zuen, arabieraz.

Gizonak ez zion jaramonik egin, baina begi argiko sasi-gidaria ez zegoen amore emateko prest.

–Erantzun, lagun –frantsesez oraingo honetan–. Zu ez zara herri honetakoa, ezta?

Emaitza berdina izan zen.

–Dena dela –berrekin zion, ostera ere arabieraz–, ez daukazu europar itxurarik, nahiz eta Tarifatik etorri...

–Pasaporte espainiarra daukat –erantzun zuen gizonak azkenean, galdetzaileari so arduragabea eskainiz.

–Baina marokoarra zara, jatorriz –lehenengo garai-pentxoak sentiarazi zion poza disimulatuz eta, aldi berean, harrapakina amua irensteko bidean zegoela sumatuz.

–Bai.

–Tangerkoa ez, ostera.

–Ez.

–Ostatu on eta merkea lortu ahal dizut.

–Badaukat ostatua.

–Medinan?

–Bai.

–Zein?

–Ez dizu ardura.

–Badakizu joaten?

–Gehiegi galdetzen duzu, ezta?

Ez ziren hitz zakarregiak izan, baina irmotasun handia adierazi zuten, ahoskeraren ozenak lagunduta. Hala ere, sasi-gidariak eutsi egin zion.

–Oso nahasgarria da Tangerko medina, labirinto baten antzekoa, eta galdu egin zaitezke. Beharbada zure herrian ere badaukazue medina eta badakizu nolakoak izaten diren –alderdi zaharraren sarrerako arku handira ailegatuak ziren–. Arkupetik jarrai dezakegu, edo eskailera

hauetatik gora jo, segun eta zer hoteletara zoazen. Dena dela, alde bietatik sartzen da medinan.

Segundo bateko zalantzaren ostean, eskailera luzetatik gora jo zuen gizonak. Ibilera pixka bat bizkortu zuen, baina mutilak jarraitu egin zion, arnasestuka bazen ere. Igotzen minutu eskas bat zeramatenean atso eskale baten albora iritsi ziren. Atari baten aurrean jesarrita zegoen, begi bat itxita eta bigarrena zuriturik zeukan, baina beste gauza batek erakarri zuen lehenago heldu berriaren arreta: haren berna biluz eta mailatuak erdizka estaltzen zituzten galtzerdi zuri-lilek. Gelditu, poltsikoan arakatu eta dirham bat ipini zion eskuan atso itsuari. Honek, txanponaren hoztasuna sentitu bezain laster, gogor oratu zien limosna-emailearen atzamarrei, usaindu egin zituen arnasa indarrez hartuz, eta segituan askatu eta eskerrak eman zizkion arabieraz, atso zahar eta makal batena ez zirudien ahots ozenaz. Ustekabean harrapatu zuen horrek denak iritsi berria, baita sentsazio desatsegina eragin ere, bere begitardean azaldu zenez. Hala eta guzti, ezer esateke jarraitu zuen gorantz, makuluduna atzean zeukala, eskailerak amaitzen ziren tokira ailegatu arte. Han beste arku txikiago baten azpitik igaro eta Mokhtar Ahardan kale estuan barruratu ziren. Beste gauza bat egin zitzaion deigarria orduan iritsi berriari: ostatu merkeen pilaketa handia hain metro gutxitan.

—Ondo dago pobreez errukitzea, lagun —entzun zuen, atsekabez—. Musulman ona ematen duzu. Bazara, ezta?

–Gutxi gorabehera.

–Zelan daukazu izena?

Gizonari kosta zitzaion erantzutea:

–Mohammed –gogaikeria kutsua hartzen ari ziren haren hitzak.

–Nik Mones –makulu biei esku batez oratu eta beste luza zion iritsi berriari.

–Pozten naiz –bostekoa etsipenez onartuz–, baina ez dut zure laguntzarik behar. Badakit nire hotela non dagoen, halandaze...

–Ez duzu haxix apurtxo bat gura?

–Ez.

–Eta neskarik?

Hotel Olid zioen kartel zuri-gorriaren azpiko kantoiaren zeuden emakumeak seinatu zitzaion. Biak margebtarrak ziren eta txilaba tradizionalaz jantzita zeuden; laranja zen batarena, horia bestearena; lehenengoak, nagusienak, gorriz tindaturik zeukan ilea, eta gazteak zapi zuri batez estaltzen zuen burua.

–Zer moduz, gizona? –esan zion ilegorriak, sotiltasun handirik gabeko ahoskeraz.

Heldu berriak ez zion deus erantzun. Zeharka begiratu zion isilik zirauen beste neskari, txilaba horikoari, eta aurrerantz jarraitu zuen karrikatik gora, arbuiatu itxurako beste hainbat ostaturen kartelen azpitik igaroz. Begitartea gero eta serioagoa zeukan eta hasierako arduragabetasunari unadura nagusitzen ari zitzaiola zirudien.

–Ziur ez duzula emakumerik nahi? Ederrak dira, ondo ikusi dituzu? Eta Espainiakoak baino askoz merkeagoak. Nagusiak sekulako esperientzia dauka eta nahi duzuna egingo dizu, edozein gauza. Gaztea, ostera, ia birjina da, guri-guria, azal oso zurikoa. Esan egia, nik uste dut gaztea gustatu zaizula, ez al da hala?

Bat-batean geldituta, aurpegira zuzen so egin zion heldu berriak sasi-gidariari, eskuin begiaren ertzean zeukan ilargierdi itxurako orbaina agerian utziz.

–Putarik nahi badut, badakit zelan lortu, eta ez dut txokolaterik erretzen, ados?

–Ados, ez ipini horrela.

Isilaldi deserosoa sortu zen une batez, baina mutilak, halako egoera desatseginak gobernatzen ohiturik egonda, berriro mintzatzeko ausardia hartu zuen.

–Kale honetan ostatu eskasak baino ez daude eta zuk, zeure itxura dotoreaz... ziurrenik Continental hotelera joan nahi duzu. Galdu egin zara, ezta?

–Ez.

–Tira, nahi baduzu alde egingo dut –amore emanda zegoela zirudien–. Dena den, hortxe bertan daukazu, berrogei eta hamar metro gorago, Zoko Txikia, bere kafetegi, jatetxe eta abarrekin. Gorantz jarraituz gero, hirurehun bat metrora, medinaren beste aldeko irteera eta Zoko Nagusia daude.

–Badakit.

–Konforme. Beraz, ez nauzu gehiago behar, ezta?

–Ez.

–Orduan, eskupeko txiki bat emango didazu honaino laguntzeagatik eta emandako informazioagatik? Denok ez gara zu bezain zorionekoak, badakizu, nik ere nahi nuke Espainian bizi eta...

–Ez dizut ezertxo ere eman behar –eten zuen heldu berriak, gogaikeria disimulatzeko inolako ahaleginik egin gabe–, eta hobe duzu berehala ospa egitea, guztiz nazkatu baino lehen.

Turista arrunt batekin bestelako erreakzioa izango zuen sasi-gidariak, baina gizon hari ezohiko zerbait antzeman zion, benetan arriskutsua izan zitekeelako itxura. Bere senak esan zion onena ahoa berriz ez zabaltzea zela eta, buelta emanda, etorritako bidetik abiatu zen, Mokhtar Ahardan karrikan behera.

Heldu berria ezbaian egon zen une batez. Mamora hotelaren parean zegoen eta inguruko ostatuek baino itxura pixka bat txukunagoa zeukala begitandu zitzaion. Gehiago ibiltzeko batere gogorik gabe, sartu eta gelarik onena eskatu zuen. Giltza hartuta, bigarren solairura igo zen eta logelako atea ireki orduko ohartu zen hezetasun usain nabarmenez. Poltsa lurrean utzi eta erabat lurrindutako leihoa ireki zuen. Tangerko Meskita Nagusiaren dorre zuri-berdearekin eta kolore bereko teilatuekin egin zuen topo haren begiradak. Inguruan, argi-ilunetan, medinako etxe zurien terrazak ikusten ziren. Euri arriskua gorabehera, koltxoiak, alfonbrak eta arropa esekiak ageri

ziren nonahi, antena zaharrez, satellite bidezko ez eta hondakin ugari inguratuta. Portuko argi handiei esker, hiri zahar aldapatsuan gora kokatuta zeuden etxeak eta, azkeneko muturrean, *kasbako* harresiak ere ikus zitezkeen. *Hotel Continental* zioten letra gorri eta erraldoietan ere pausatu zen heldu berriaren begirada. Sasi-gidariak asmatu egin zuen, huraxe zen bere benetako jomuga. Edonola, hara hurrengo egunean joango zela erabaki zuen.

Poltsikotik sakelakoa atera eta zenbaki bat markatu zuen.

–Ailegatu naiz –esan zuen.